

Bruno Soto lemoaztarra Espainiako txapelduna

Bruno Soto Fernandez lemoaztarrek irabazi eban Madrilen jokaturako halterofiliako Espainiako Txapelketa 20 urte arteko Junior mailan, 81 eta 89 kilo bitartean pisatzen dabenen kategorian. Arrankadan 114 kilo altxau ebazan eta denpora bitan 138 kilo. Guztira 251 kilo, beraz. Igaz be berak irabazi eban txapelketa eta ukondoko minez egon arren, barriro be hiru urrezko domina Arratiara ekarte lortu eban Sotok. **14. orrialdea**



Ekhi Ziarrusta Bizkaiko Banakako Trinketeko txapeldunorde
14. orrialdea

Eukaliptoaren kalteak inguruan eta gizartean

Lau adituk azaldu ebezan eukalipto landaketak dakarren kaltea basoetan zein gizartean. Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak eukaliptoaren eraginaren gaineko eztabaidea antolatu eban aprilaren 8an. Eragin kaltegarri hori emon eben jakitera, baita horrerri aurre egiteko sortu diran ekimenak be.

Lau hizlarik heldu eutsien gaiari ikuspuntu desbardinatetik. Arturo Elozegi, EHuko katedratikoak ingurumenean, baina batez be biodibersidadeari zelan eragiten deusan azaldu eban. Jon Hidalgo Lurgaia Fundazinoako presidentek, GKE honek egiten dauan lana azaldu eban; lurak erosi, landaketak kendu eta bertako basoa sortzean lagundu, hain zuzen be. Txomin Diaz Letamendi mendi ingeniariak, gizartea eta basoen arteko harremanetaz egin eban berba, baso kultura bat dagoala eta basoetatik urrundu egin dala gizartea eta baso kultura hori galtzean dagoala esan eban. Patxi Olabarrietak, Arratiako lur sail batzuen jaubeak bere esperientzia kontau eban etxe inguruko lur sailakaz.

Eukalipto landaketen arrakasta, azkar hazten dan espeziea dalako eta bere egurra denpora gitxian ustiatu daitekkelako da. EAEn, pinuaren banda marroiaren gaixotasuna dala-eta, asko zabaldu dira eta eukalipto landaketak pinu landaketak ordezkatu ditue leku askotan. Arratian, joera hori be badago eta arazoa beste leku batzuetan bezain larria izan ez arren, gizartean kezka nabaritu da. **10. eta 11. orrialdeak**



LEMOA

Memoria eta Kultura astea ospatuko dabe Lemoan

Maiatzaren 10etik 16ra izango da. Lemoatxako batailako lubakietatik ibilbidea egiteko aukerea egongo da hilaren 16an, zapatuan. Lehenagoko berbaldi, dokumental, kontzertu eta beste ekintza gehienak Koxepin Kultur Etxe estrenau barrian egingo dira. **5. orrialdea**

ZEANURI

Merkadu txikia antolatu dabe San Isidro egunerako

Aurten be ez da egongo San Isidroko ganadu azokarik Zeanurin. Horren orde, Gorbeialdek antolatutako merkadu txiki bat eta EinGO taldearen musika animazinoa egongo da. Hurrengo egunean, Oihan Vegak umeentzako ikuskizuna eskainiko dau frontoian. **8. orrialdea**

ARRATIA

Errotak 2021-2024ko Plan Estrategikoa egin dau

Bigarren Plan Estrategikoa da. Planaren helburua, Arratiako Garapen Ekonomikorako oinarria izatea da, eragiten deutseenen eragileen babesa lortuz. Horretarako, ekintza plan definitu, finantziatzen iturriak identifikatu eta gobernantza eredu bat sortu behar dau Errotak.

Errota Fundazioak Arratiako ingurune sozioekonomikoa dinamizeteari dauka helburu. 2017an sortu zan eta Batz S. Coop, Ilunbe S.A., Zulaibar Lanbide Ikastegia eta Errotariok alkateta ditu bere patronatuan. Bere helburu nagusia, aldaketa sozioekonomikoaren bidez, arratiarren bitzita kalidadea hobetutea da. **7. orrialdea**

EKIN
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccionesekin.com

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dina] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant
[f](https://www.facebook.com/garena.restaurant) [i](https://www.instagram.com/garena.restaurant) [garena.restaurant](https://www.garena.restaurant)

Literatura txokoa

PERLAK, KOLPEAK, MUSUAK, TRAZIOAK

Boxeoak lotura estua izan dau, beti be, arteagaz. Hainbat boxeolari topau leikeguz zineman: Kirk Douglas, *Champion*; Paul Newman, *Somebody Up There Likes*; De Niro, *Raging Bull*; Hilary Swank, *Million Dollar Baby*... Idatzi be askotxo idatzi da boxeoz, baina ez askorik gurean. Boxeoz idatzi dabe Cortazarrek, Mailerrek, Talesek... Legendak dino Hemingwayk askotan bere jarduna burrukalarien berbakeran neurtzen ebala: "Nik Txekhov garaituko neuke puntuetan, ebatzi aho batezkoan". Joyce Carol Oates irakasle eta idazleak —*On Boxing* saiakera apartaren egileak— sarri kontetan dau aitak burrukak ikusten eroaten ebala, artean neskati gaztea zala.

Gure herriak emon dau boxeolariarik, ez arruntak gainera, baina haren errebisinoa ring-etik kanpoko kontuak ilundu dabe, seguruenik. Paulino Uzkudunek Joe Louis handiaren aurka egin eban burrukan, 1935eko abenduaren 13an, boxeoren tenpluan, Madison Square Gardenen. Isidoro Gaztañagak Uzkudunek baino talentu handiagoa eban boxeorako, baina burrukalari askoren antzean, bere burua ezin gobernaurik ibili zan bere kirol-bizitza osoan.

Boxeolari bi honeen ibilkerak kontauko deuskuz Joxemari Iturraldek liburuan zehar. Ezinbesteko irakurketea; plazer handiz irakurten dan lana. Soberan dagoan guztia alde batera itxita

idatzia, literatura zintzo-zintzoa. Euskal Herria, Paris, Habana, New York, Gary Cooper, Lupe Velez, Dolores del Rio, Ernest Hemingway...

Iturraldek esanda dauka ez ebala beren-beregi boxeoz idatzi gura izan, baina neurri batean edo bestean, momentu guztietan dago presente. Boxeoz harilkatzen dau istorioa, hasikeratik amaierara arte; boxeo kiratsa dario.

Marvin Hagler txapeldun handiak honelaxe definidu eban behin bere burua: "Burrukalari naz, eta burrukan eginez ibiltzen oinez, eta burrukan eginez egiten dot berba, eta burrukan eginez egiten dot hausnar, baina saiatzen naz disimuletan". Bada,



Joxemari Iturralde

Perlak, kolpeak, musuak, traizioak

Pamiela, 2015

192 orrialde

Uzkudunek eta Gaztañagak be ezin izan eutsien inoz boxeolari izateari itxi. Gozatu konbateagaz!

Mikel Urkixo Aierdi

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 3tik 9ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 10etik 16ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 17tik 23ra
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era ordu.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: *begitu@topagunea.com*
Webgunea: *www.begitu.org*
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

COVID-19 pandemia

Paziente maite hori, zuregana zuzendu gura nintzan, zoritxarrez COVID-19agaitik. Munduan miloeka kasu dagoz, gaixotasun honek persona asko harrapatu ditu, zoritxarrez, zu bezala, eta ez daukazu ez elango errurik gaixotasun horrek zu eta beste asko harrapatzeagaitik. Hau irakurten badozu, bizirik jarraitzen dozula eta biziteko aukera bat izango dozula esan gura dau eta egoera txar hau pasetako aukerea daukazu. Horrek asko eragingo dau zure bizitzan.

Ospitaletik kanpo eta nire etxetik, nire babes handiena emoten deusuet, bai zuri eta bai gaixota-

sun ikaragarri hau bizi dozuen guztiai, eta, aurrerapen medikoak eta mundu honetan dagozan osasun-langile guztiak kontuan hartuta, hau ixteko gai izango zarie.

Uste dot gizaki guztiok egin behar dogula gure lana, batez bezuk eta gainerako guztiak aurrera egin ahal izateko eta, gainera, dana ondo aterako dala konfiantzea euki eta espero behar dogu, horrek autoestimuarri laguntzen deutso eta gizakiaren osasunerako onuragarria da.

Nire babesa eta animoa emoten deusudaz, honetatik aterako garalako eta etorkizunean istorio moduan kontauko dogulako. Barriro be ikusiko dogu alkar.

Besarkada haundi bat.

ANDONI VAZQUEZ

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Mokil



Ortua edo soloa makinatu orduan ateraten diran lurzati handiak dira mokilak. Moltso gogorak izaten diranez, ostean apurtu behar izaten dira (mokile, ahoskatuta). Batuan, sokil eta zokor dira, besteak beste. Soloko mokilak zatituteko erabilten dan tresnari mokil-porrea esaten deusagu. Kirtendun (1,5 metro) tresna honek puntan, trabesean, beste egur lodi eta astun bat dauka mokilak jo eta birinduteko. Behar hau eginda lurra ereiteko prest egongo litzateke. Adibidea: "Asko da ba, zu lango gizona mokilak haustuten ibiltea soloan!".

ERETXIA

Netflix euskeraz

10.000 sinaduraren langa gauditau Netflix Euskaraz taldearen egitasmoak. Baina, euskal herritarrak emondako erantzuna ikusita, abenduaren 3ra arte luzatu da sinadura bilketea eta gure erronka 20.000 sinadurara heltzea da oin.

Apirilaren 17ko agerraldian, euskalgintzako eta ikus-entzunezkoen munduko eragileen babesa jaso dau ekimenak. Durangon izan dira Iker Martinez de Lagos Topagunetik, Paul Bilbao Euskalgintzaren Kontseilutik, Miren Seguro eta Iraitz Lazkano UEMAtik, Iñigo Arandia Tinko Euskara Elkartetik, Alexander Aginagalde Disney + Euskarazetik, Xabier Alkiza eta Aintzane Crujeiras BIEUSEtik, Jon Artatxo Ibaia Ikus-entzunezko Elkartetik, Eymard Uberetagoena eta Itziar Garcia Napar ikus-entzunezkoen ekoizpen naparratik, Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategitik, Igor Astibia Hekimenetik, Arkaitz Zarraga UEUtik, Koldo Zarate Euskal Herriaren Euskarazetik, Aitziber Balantzategi eta Iñaki Urkijo AEKtik, Iñigo Iruarrizaga Zertu Kultur Elkartetik eta gaur etortzerik izan ez daberen eta atxikimentua adierazo deuskuen Game Erauntsia eta Euskal Encodinds-etik.

Pantaila digitaletan euskerearen presentziaren alde, abian dagozan beste herri mobimentu bi ekarri gura izan ditue gogora: Disney + Euskaraz ekimena (6.000 sinadura bildu ditu azken hilabeteotan), eta, 3.000Twitx ekimena (4.000 sinadura baino gehiago bildu ditu).

Netflix Euskaraz taldearen helburuak honeek dira:

-Ikus-entzunezkoetan bizi dogun egoeraz jaubetzea, herri gisa; euskereari amasa eta bizitza emon gura badeusagu, estrategikoa da sektorea, eta eztabaida erdigunera ekarri gura dogu.

-Streaming plataforma barietan ez dago ia euskerazko edukien eskaintzarik. Netflixen,



NETFLIX EUSKARAZ

ez dagoz euskeraz, eta telesailik ez dago bat bera be. Hori dala eta, Netflixeri euskerazko edukiak ipinteko eskaerea egiten jako (jatorriz euskeraz ekoizitakoak, bikoiztuak eta azpidatziak).

-Espainiako Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokor barria tramitetan dabiz, eta aukerea ikusten da, bildutako indarragaz, lege horretan eragiteko. Ikus-entzunezkoetan euskerazko eskaintza bermatzeko, plataformak horreen jardurea arautu behar da. Lege horretan hizkuntza aniztasunak jasota izan beharko leuke. Streaming plataformetan Estaduko hizkuntza ofizial guztietan izan beharreko eduki kuota zehaztu eta bermatu beharko lirateke.

Alderdiak eskatzen jakie:

-Alderdiak bere gain hartzeako jagokien erantzukizuna. Lege horrek euskaldunon eskubideak jaso beharko leukez, eta euskerak gaur egun ez daukan lekua izan beharko leuke.

-Datozen asteetan, Espainiako Kongresuan, Espainiako Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokor barriaren gaineko eztabaidan, alderdi politikoak euskal hiztunen eskubideen defentsan bat egin behar leukie eta Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Lege Orokorari jarritako alegazioak babestu beharko leukiez. Era berean, aurreratu gurako geunke euskereari zuzenean lotzean jakon proposamen bat adosten gabizala eragile guztien artean.

Euskal Herriko erakundeai jagokie euskaldunon eskubideak bermatzea. Horretarako, tresna egokiak beharko dira:

-Batetik, Euskal Herriko parlamentuak eskumena daukien esparruetan, ikus-entzunezkoetan euskerearen presentzia legez arautzea eskatzen dogu.

-Beste alde batetik, ez daukaguzan benetako egitura sendoak sortzea. Ikus-entzunezkoen Euskal Kontseiluaren beharra ikusten dogu, ikus-entzunezkoetan euskal hiztunen eskubideak beteten dirala ziurtatzen dauan egiturazko tresna publikoa.

adibidez, 3.500 film eta telesailiko eskaintzatik lau film baino

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsinoak
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaiak)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Kili-Kili
Amopu eta Puzatutakoak
Lehendakoa Agirre 10 - ICORPE (Bizkaiak)
Tel.: 94 673 43 81

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Goider 666 58 20 06
Puzutu polygonak, 10 LEMOA - beeredariak@gmail.com

LUMATUTEN

JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA

Arlanpeko atsoa

Arriatiako Lemoan, Aramotz mendigune aurreko Pagotxuetatik mendebaldeantza daukagu Arlanpeko kobazulo prehistorikoa. Kobazulo hori ez da handia, baina sano interesgarria, Dimako Axlor kobazulo prehistorikoagaz batera. Amorebietako GEAC-ek, 1961ean aurkitu ebazan Arlanpen aztarnategi prehistorikoak On Jose Miguel Barandiaranen ustez. Berrogeta bost urte geroago, 2006tik 2011ra bitartean indusketak egin ziran barriro. Indusketaldi horretako azkenengo urtean, 2011n, 70 bat kiloko harri bat aurkitu eban Joseba Ríos Garaizar arkeologoak. Harritzar horretan andra itxurako grabatu eskematikoak agertzen dira, Iberiar penintsulako arte paleolitikoko bakarrak, izan be. Lehen Venus-a, andrazko honen grabadua Magdalenien garaikoa da (17.500 urte ingurukoa) eta "La Dama de Arlanpe-Arlanpeko Dama" izena jarri eutsien. Gato-

zan gaur egunera. Gorbealdean darabilgun esakera zahar batek hauxe dino: "Arlanpeko atsoa lebesuginen". Jakina, gure baserrietan labesua egiten zanean, laberik harako kea, gora barik, alborik hara joaten zan sarritan. Horren irudira-edo, Arlanpeko hatxetik behera sartzean zanean lainabeherea, euria datorrenaren seinalea izaten zan, denpo-arearen txarrerako aldaketea, eta baserriarrak orduntxe erabiltzen eben esakera hori. Eta egia zan. Gure baserriarrak, ez eukienez besterik, laino, euri, haize, bero, hotz eta holakoetan fijetan ziran euren ereitza, ernaro, garapen eta abarretarako. Begitu, behin, Saldarrin, arto-ereiten ebilzan andra-gizon bi eta akordatzakoan, lainabeherea sartzean barruntau eben Arlanpetik. Horretara badinotso gizonak: "Hi, erantatu egin beharko joaguna, Arlanpeko atsoa labesuginen hasi dona-eta. Eupada bat bota eiona alabeari be itaurren egiteko". Esan eta egin. Erantau ziran eta zelanbait erein eta tapau arto-hazia euria hasi aurretik. Ez dakit, baina, Arlanpeko Damak eta Arlanpeko atsoak zerikusia eukiteaz gain, ez ete garoaz eusko matriarkalismora? Baleiteke!

ZERTZEAN



EÑAUT INTXAURRAGA

Gaia jarrita: "Hurrengo geltokian zer?"

1

Eta gero zer? Hori da zalantza galdera zalantza hau elikatzen gabiz batetik bestera zalantzen saltsan iltzatzen jakuz zalantzak gainera ni behintzat ez nator zuen zalantzarik argitzera zer jartzen dogu zalantzan galdetzen dot eta zera dana da zalantzagari zalantzaren arabera beraz zalantzatzen segi beharko dogu aurrera zalantzarik ez daukana zalantzazko ez ote da?

2

Ba ote dago mundurik institutotik harago? Posible al da ikastea oin arte baino gehiago? Hemetik kanpo arnasik hartzerik ba ote dago? Ta zergatik ikusten dot dana gero ta baltzago? Markatu bako bidean hain sentitzen naz arraro duden gurrpil zoro hontan gizartearen esklabo dana popatik hartzera bialdu nahi neuke klaro nire geroan pentsatzen denbora galtzen al nago?

3

Sarritan pentsetan dogu hau-hori egin bagendu alegiazko baldintza antzuek burutik kendu oraindik ez da berandu ilusioa mantendu zuen eskutan dagola gura neuke nabarmendu gero zer-i begirada begietara zuzendu ez zaitzie zalantza horretara mutu heldu galdera horren aurrean jokatu eixue heldu zuen etorkizuna da ta adarretatik heldu.

Batxilergoko ikasleai egindako beritoak aspaldi.

Doinua: Habanera.

BEGI TXINDORRA

Lehendik be prensa txarra eukan plazerrak. Pekatua zan. Eta plazer batzuk galazota egozan, gure arimen salbazinorako. Gure onerako zan, ondasun handi baten izenean.

Oin be, COVID-19ari aurre egiteko neurriak, ondasun handi baten izenean, gure salbazinorako, galazo egiten ditue plazer gehienak. Izan be, ez dago apenas plazer posible, maskara soinean eta distantzia soziala gordeta.

Plazerraren aldarrikapena beti izan da sistemearentzako mehatxu bat. Eta sexo-genero eta sexualidade sistemea arrakalatzeko plazerra da Sare Lesbianistak proposatzen dauan tresna politikorik indartsuenetakoa. Plazerra eta desobediencia, "heteroak aginduagaitik, bolle- rak, plazerragaitik" dinoe pankartan.

Apirilaren 26an, ikusgarritasun lesbikoaren egunean, lau kotxez osotako karabana musikatu urten zan Zeberioiko plazatik Durangoko Institutuan *La rara de la familia* dokumentala ikusteko. "Konexino polita izan zan, saretze ederra" azaldu deutso partaide batek BEGITURI. Plazerra, beraz.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA
Elkano, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 54 62 - 908 854 018

T ERROITZ
OKA
Igorriko geroak
ezazu!
Lanbideari Agere 10
Igorri

Ekitaldi ugari Kotxepin Kultur Etxean Memoria eta Kulturaren astean

Maiatzaren 10etik 16ra, Memoria eta Kultura astea antolatu dau Udalak.

Berbaldiak, dokumentalak, kontzertuak eta ikuskizunak dagoz programauta

Kotxepin Kultur Etxe barrian.



Kotxepin Kultur Etxe zabaldu barria.

Erredakzioa

Horreetarako eta 1936ko gerrako lubakietatik ibilbiderako, izena

emon behar da alde zuretik udalaren webgunean. Eta aste osoan zehar, oindino memoria kolektiboan dagozan antxinako

jolas eta herri kirolak erakutsiko deutseez gurasoak 9 eta 12 urte bitarteko umeai eskolan, iragana eta etorkizuna memoriaren haria-

gaz lotzeako.

Horreezaz gainera, umeentzako ikuskizun bi antolatu ditue Memoria eta Kulturaren astean. Bost urte artekoentzako *Azalerako ipuinak* ikuskizuneko saio bi egongo dira Kotxepin Kultur Etxean, maiatzaren 12an, eguaztenean, 17:15ean lehenengo, eta 18:15ean, bigarre-na. Barikuan barriz, hilak 15, 3 eta 9 urte bitartekoentzat *Txiki handia zara* ikuskizuna eskainiko dau Inñigito Txapelpunk-ek 18:00etan.

Kultur jarduerak

Zuhaitz Gurrutxagaren *FutbolisTOK* bakarrizketeak emongo deutso hasikerea asteari, hilaren 10ean, 19:00etan. Komedia, tragedia gehi denporea ei da, eta bakarrizketa honetan Gurrutxagak, umorez, Real Sociedad futbol taldeko jokalaria zaneke sasoia gogoratu eta nahasmendu obsesibo-kompulsiboaz egiten dau berba. Ez da lehenengo aldia Herri txiki, infernu handi telebista saioa aurkezleak bakarrizketa hau Arratian egiten dauana eta beti arakasta handia izan dau.

Hurrengo egunean, hilak 11, 19:00etan, *Mozorroa ez da disfracatzea* berbaldia egingo dau Oier Araolazak. Hiztegiarentzat

sinonimoak izan arren, kontzeptu desbardinak adierazoten dabez berba horreek. Horreek bereiztu eta Europako inauteri tradizioan erabilitako moztorroaz egingo dau berba antropologoak.

Eguenean, 19:00etan, Mikel Zabalzaren heriotzearen gaineko *Non dago Mikel?* dokumentalaren proiektinoa egongo da. Amaia Merino eta Miguel Angel Llamasek idatzi eta zuzendu eben dokumental hau 2020an eta Donostiako Zinemaldian estrenau zan.

Hurrengo egunean, hilaren 14an, 19:00etan, Jon Maia, Gor-ka Hermosa eta Pitti musikariak *Hezurbeltzak* kontzertua eskainiko dabe. Proiektu honegaz, egileak uniberso propioa sortu gura dabe zuzeneko emonaldietan eta kantu eta testuetan, besteak beste, gizarteak baztertutakoenginguruko istorioak kontetan ditue.

Zapatuan, 1936ko gerrako lubakiak eta Lemoatxako batailea ezetuteko ibilbidea egiteko aukerea egongo da. Partaideak 09:00etan batuko dira Elizondoko aparkalekuan. Arrastian, 18:30ean eta asteari amaiera emoteko, Olatz Gorrotxategik *43° 13' 44"N* Memoria Historikoari buruzko antzerki proiektua aurkeztuko dau Kotxepin Kultur Etxean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Maiatzaren 8an izango da Sareren Izan Bidea ekimena

Urri bigarrenaren 3rako eukan antolatuta Sarek, Euskal Herriko 650 tontorretara igoera, tartean gure eremuko hogeitau gehiagotara, Izan Bidea ekimenaren barruan, euskal preso, igeslari eta deportaduen alde.

Erredakzioa

Izan Bideaneko kamiseta soinean, mendiotara igoteko deialdia egin dabe. Izen emotea zabalik dago 650tontor.sare.eus helbidean.

12:00etarako egongo dira ibiltariak mendi tontorrean eta edozein modutan igon daiteke: oinez, galapan, bizikletan... Egingo dako kilometroak kuantifiketako Izan Bidean izeneko aplikazio bat dago, bidetari ekin aurretik deskargatu egin behar dana. Tontorrean, argazkiak atera eta sare sozialetan eskegiko dabez parte hartzaileak.

Dinamikan parte hartzeako igon daitezkezan mendiak hurrengoak dira: Aldamin (Zeanuri), Altungana (Zeanuri), Apario (Igorre/Lemoa), Arrugaetako atxa (Zeberio), Artanda (Zeberio), Ar-



taungan (Dima), Bargondiko atxa (Dima), Eneabe (Ubide), Errialtabaso (Dima), Garaio (Dima), Gartzarrieta (Zeanuri), Gorbeia (Zeanuri), Ilunbe (Areatza), Lekanda (Zeanuri), Lemoatxa/Gantzabal

(Lemoa), Leungana (Dima/Mañaria), Mandoia (Bedia/Zeberio), Murga (Artea), Santiagozar (Bedia/Lemoa), Untzueta (Zeberio), Upo (Areatza), Urrekoatxa (Dima) eta Zibururi (Zeanuri).

ARRATIA

Mendian lo egin barik izango da Arratiako Jabekuntza Eskolako mendian autonomia landuteko ikastaroa

Erredakzioa

Igoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolaren barruan maiatzaren 8 eta 9rako *Andrak mendian autonomia lantzen II* ikastaroa egoan programauta. Mendian lo egitea zan ikastaroko jarduerak bat, erakargarri-na. Baina egun bateko ikastaro teoriko-praktikoa egingo da maiatzaren 9an, goiz eta arratiz. Garazi Santos eta Laura Ruizen eskutik talde bi egingo dira; izan be, gehienez sei lagun izan behar dira kirol praktikan.

Ikastaroaren helburua iparrorratzaren erabilera, mapa irakurketea, segurtasun teknikak eta orientazioaren oinarriak ikastea da, andrak mendian autonomiaz eta lasaitasunez ibili daitezkean.

Bederatzietan hasiko da Igo-reko Kultur Etxean. 09:00etatik 13:00etara, GPSa erabilten, ibilbideak aukeratu eta track-ak ma-

razten ikasiko dabe partaideak. Smartphone-a edo GPS-a eta portatila eroan behar da. Ondoren, bakoak etetik erandakoagaz, alkarrengaz bazkaldutako etena egingo da. Arrastian, 14:00etatik 18:00etara, ikasitako praktikan ipiniko dabe ikasleak inguruko mendi baten.

Izena emoteko WhatsApp bat bialdu edo deitu 688 627 393 telefonora edo mezua bialdu berdintasuna2.arratia@bizkaia.org helbide elektronikora.



ZEANURI / ZEBERIO

BAKQ identifikazio eta sinadura elektronikoko giltza udaletxean eskuratu daiteke**Erredakzioa**

Administrazio publikoetako tramiteak online egiteko, BAKQ identifikazio eta sinadura elektronikoko giltza eskuratu daiteke Zeanuri eta Zeberioko udaletxeetan. Aldez aurretik zitea eskatu behar da. Ordenagailuetan, telefono mobikorrean eta tabletetan erabili daiteke, edozein sistema eragileguz, eta ezer instalatu barik.

Izenperen herritarren ziurtagiria edo NAN elektronikoa euki ezker, online eskuratu daiteke BAKQ. Udaletxeetan eskuratzeko, zitea hartu eta bertara joan behar da identifikazio agiri batez. Zeanuriko hitzordua harrera@zeanuri.eus helbidean eskuratu behar da eta zerbitzua barikuetan 10:00etatik 12:00etara eskainiko da. Hamasei urte baino gehiago euki behar da, helbide elektronikoa bat eta eskuko telefonoa; honek helbide elektronikora sartzeak aukera euki behar dau.

Tramiteak online egitera bultzatzen

Zeberion oin arte, eskaera asko egon dirala azaldu deus Beñat Iriondo zinegotziak BEGUTURI. "Ia

beharrezkoa da gaur egun nor-tasun digitala izatea eta askoz erosoagoa da edozein lekutatik eta edozein ordutegitan egin daitekelako" dino zinegotziak. Errolda agiriak, berbarako, askok atera dabez modu telematikoa, udaletxera joan barik.

Ha-ta guzti be administrazio elektronikoa oindino barria da, eta askok aurrez aurrekoa gurago dabe. "Oindino jente gehiago hurreratu behar da honetara. Jenteari honen abantailak azaldu behar jakoz eta bildurrik euki ez dagian, animau. Oso intuizinozkoa dalako eta erraza, lehenengo bildurrik gaintzen diranean".

Tramiteak online egiten animateko, ikastaro laburrak eskainiko ditu Udalak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Idoia Alonsori suertau jako lagun birentzako degustazio menua Garena jatetxean**Erredakzioa**

2020an BEGUTUK Begitu-lagun kanpaina ipini eban martxan, 50 lagun barri egiteko helburuagaz. Helburua ez da bete oindino 14 Begitu-lagun barri egin dira eta.

BEGUTURENTZAKO finantzazio iturri bat dira Begitu-lagunak, horregaitik Begitu-lagun egiteak saria izaten

dau eta Begitu-lagun barriak BEGUTUREN produktuak jasoten ditue, Zertu Kultur Elkarteak argitaratutako liburua, tartean. Kanpaina irauten dauan bitartean egindako lagunak, gainera, zozketa baten sartzen dira. Garena jatetxean persona birentzako degustazio menuaren zozketan Arantzazun bizi dan Idoia Alonsori suertau jako saria.



Begitu-lagunak hainbat produktu hartuko dabez opari.


ZEANURI

Gizarte Etxearen proiektua berraztertzea eskatu dau Zeanuriko EH Bilduk**Erredakzioa**

Zeanuriko EH Bilduk Udal Gobernuaren Gizarte Etxearen proiektuagaz bere desadostasuna agertu eta proiektua berraztertzea eskatu dau. Bertan ez dala egongo gizarteak erabilteko espaziorik eta gizarte etxea baino, udaletxearen konponketak izango dala dino. "Bertan zerbitzuak eta udalaren funtzionamenturako gelak egongo dira, ez ulertzerak emon gura dan moduan gizarteak edo herritarrek erabilteko espaziorik" jakinarazo dabe EH Bildutik.

Udaletxea sasoi barrietara egokitzearen kontra ez dagozala

adierazo dabe. Izan be, aurreko legegintzaldian hori eskatu eban EH Bilduk, baina proiektu honetan hainbat argi-ilun ikusten dabe. Alde batetik, proiektua asko garestitu dala, 2020ko zezilean 170.000 eurokoa izatetik, 300.000 eurora igon dala eta igoera horren azalpenik ez dabela jaso dino. "Proiektua udaleko arkitektoak egin dau beste arkitektoak konbidau barik eta aparte kobraz. Proiektuan bertan hainbat akats topau doguz plenoan jakinarazo genduzan baina txikieriak zirala erantzun jakun. Eta proiektua egin aurretik ez da udal eraikinen optimizazioari buruzko inon-




ZEANURIKO GIZARTE ETXEA (ZENTRO ZIBIKOA)


go azterketarik aurkeztu" salatu dabe ohar baten. Horregaitik proiektua berraztertzea eskatzen dabe, dagoazan akatsak zuzenduz eta herritarren parte-hartzea bultzatuz, proiektuaren gaineko eretxiak jasoz.

Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII. zirkuitua - 2021
Apirilaren 26tik maiatzaren 30era
www.topagunea.eus/laburbira




ATERPEAN ATERI
Ruben Crespo




NIGANDEK
Imanol G. Gurrutxaga



GAME OVER
Irene Diaz Polinario



ILUNABARREAN ESAN
Kahler Vallina



BABARRUN TXAPELKETA
Andoni Múz de Madrazo eta Aitor de la Serna



DATSEGIT
Aitor Arruti



NIRE EGUNEROKO MAITEA
Eduard Castagnet, Manex Pucha, Ximena Pucha



AGUR
Iñigo Acha Gómez



EZAGUTU LABURMETRAIAK

TOKIA:

Ortuzar

EGUNA:

Maiatzak 8, zapatua

ORDUA:

18:30

ANTOLATZAILEA:

Zertu Kultur Elkarte/Ubideko Udala



Errota Fundazioak hurrengo lau urteetarako ekimen estrategiko eta helburuak batu ditu Plan Estrategikoan

Bigarren Plan Estrategikoa da eta 2021etik 2024ra egongo da indarrean. Planaren helburua, Arratiako Garapen Ekonomikorako oinarria izatea da, eragiten deutseenen eragileen babesa lortuz. Horretarako, ekintza plana definitu, finantziatze iturriak identifikatu eta gobernantza eredu bat sortu behar dau Errotak. 2024rako, Errotaren negozio bolumena 250.000 eurokoa izatea espero dabe. Diru horren %85 dirulaguntza eta udalen aportazioen bidez lortuko da.



Erredakzioa

Lehenengo Plan Estrategikoa 2020an amaituten eban bere indarraldia eta zezeilean batu zan Iratxe Goikoetxea Errotako koordinatzailea, Ekonomia Sustapenerako Foru Diputadua gogoa aztertu eta etorkizuneko Errotaren oinarriak definitzeko. Martian, konfinamentuak, eta ondorengo COVID-19a dala-eta hartutako neurriak, Plan Estrategikoa egiteko prozesua eten egin eban, eta egoera sozioekonomikoa be, aldatu.

Plan Estrategikoa egiteari urri lehenengoan ekin eutsien barriro eta horretarako Azaro Fundazioa kontratatu zan, 2021eko zezeile-ra arte. "Hau garatutako sortu genduan hausnarketa talde bat, patronatuko kideakaz, eta gure intereseko erakundeak alkarriketatu genduzan" azaldu deutso BEGITURI Goikoetxeak.

Planak lau fase izan eban. Lehenengoa, antolamentua; bigarrena, Errotaren egoeraren azterketa, barruko eta kanpoko analisiaren bitartez; gero, misioa, ikuspegia eta balioak eguneratu eta lan erronkak zehaztu eta zabaldu; eta laugarren fasea gobernantza eredu definitzea da.

2021etik 2024rako erronkak

Erronkak dira Plan Estrategikoaren oinarria, ze erronka honek lortzeko, lan ildo estrategikoak de-



finidu dira, baita garatu beharreko ekintzak be. Epe horretarako Errotaren helburu edo erronka nagusiak, eskualdeko garapen sozioekonomikoan eragitea, erreferentzialtasuna lortzea, eragile publiko eta pribaduen bilgunea izatea eta eraginkortasun ekonomikoa bermatzea dira. Horretarako, enpresen lehiakortasuna hobetu eta pertsonen laneratzea bultzatuko dau fundazioak. Gainera, beste gauza batzuen artean, komunikazio plan bat garatu gura dau, bere lan arloak garatzeko beharrezkoak diran agenteak patronatuan sartu, eta plangintza ekonomiko-finantziarioa definitu.

Errota Fundazioa

Errota Fundazioak Arratiako ingurune sozioekonomikoa dina-

mizetea dauka helburu. 2017an sortu zan eta Batz S. Coop, Ilunbe S.A., Zulaibar Lanbide Ikastegia eta Errotariok alkateta ditu bere patronatuan. Bere helburu nagusia, aldaketa sozioekonomikoaren bidez, arratiarren bizi kalidadea hobetzea da.

Lan eremua, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanurik osotuten dabe eta eurretan, aholkularitza proiektuak eta asistentzia teknikoak, eta administrazioaren dirulaguntzak jasoten dituen proiektuak garatzen dauz Errotak.

Garapen ekonomikoa sustatzeko plan bat eukitea garrantzitsutzat jo eban BFAkoak, eurai "enpresen lehiakortasunari buruzko erronkak heltzean jakiezalako gure bitartez, baita, Foru Aldundiak dituan pro-

gramak, gure bitartez egiten dira" Errotakoaren arabera. Errotak landu beharreko arloak, enpresen lehiakortasuna, enplegua, formazioa, talentua, azpiegiturak eta ekintzailatza, industrian eta zerbitzuetan dira.

COVID-19ari aurre egiteko neurrien ondorioz, "autonomoak, ostalariak, dendariak... krisia bizi izan eban eta udalak pentsatu eban aholkularitza zerbitzu bat eskaintzea. Gure lana izan zan, Jaurilaritzak, Aldundi eta udal dirulaguntzen gaineko informazioa emotea. Kasuren baten tramitazioan lagundutea, be bai".

Arratiako egoera ekonomikoa

Arratiako COVID aurreko egoera Bizkaikoa eta Erkidegokoa bai-

no hobe zan langabezi-tasari jagokonean. "Langabezi-tasa %10 baino gutxiagokoa zan, herri batzuetan %7, beste batzuetan handiagoa, baina batzuetan %10 baino txikiagoa. Eta bai Aldundiak eta bai Jaurilaritzak jotzen dabe puntu gorritzat %20. Gu egoera nahiko onean gengoan. COVID-19aren ostean, %11 ingurura igo da. Hor beste gauza batzuk be egon dira, enpresa handi batzuk zarratutea, berbarako, egoera txarrera eroan dabenak, ez bakarrik COVID19-aren ondorioz hartutako ebatziak".

Langabezen formazioa eta gaitasunak Arratian dagoan enpleguari, egokitzen saiatzen dira Errotakoak. "Arratiako pertsonen laneratzea bultzatzeko, Zulaibarregaz egiten dogu behar. Zulaibarrek be oso harreman estua dauka enpresakaz eta dabiz detektetan badagozala beharizan konkretu batzuk, enpresetan behar dabezanak eta horreei erantzuteko, bai langabezian dagozanak edo gura dabenak prestatu gura doguz, laneratze hori sustatzeko".

Gaur egun nahiko egoera egonkorrean dagoala Arratia uste dau Errotako koordinatzaileak. "Mundu mailan badagoz sektore batzuk oso ikutuak, automozioa, berbarako; baina beste alde batetik sektore elektrikoa oso puntan dago eta sektore horrek pisu handia dauka eskualdean. Gauza batek bestea konpentsatu dau".

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Bilatu dogu jartze *Batu dogu proiektu*

- Solentzen zein aldatu
- Lurrik (erretze, landu, baso...)
- Etebiziak (pauk, baserri, etxe...)
- Garaiek
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

- Irakin berak erakitzeko instalazioak
- Aktibitate-proiektuak

- Same diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Injintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Unibertsitate Agintza, 23. solteia - Igoera
48940 Leizorri - 48940 Leizorri
Telefonoa: 94 621 73 14 eta 649 979 112
Faxia: 94 621 73 15 eta 649 979 115
www.arratia.com

Guzai harenentzen igorriko 94 621 73 14 eta 649 979 112
Publizitateko: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com www.begitu.org

2020ko erretoa aitortpena egitea
Aholkularitza
Lekua: BBVA Areatza
Aurretiko hitzordua
699 120 827

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

ZEANURI

Maiatzaren 15ean merkadu txikia

Aurten be ez da egongo San Isidroko ganadu azokarik Zeanurin. Horren ordeaz, Gorbeialdek antolatutako merkadu txiki bat eta EinGO taldearen musika animazioa 15:00ak arte egongo dira. Merkadu txikia 11:00etatik 14:00etara izango da eta 13:00etatik 15:00etara EinGO taldea egongo da plazan.

Erredakzioa

Hurrengo egunean, *Musikarium* Oihan Vegaren umeentzako ikuskizuna egongo da Zeanuriko frontoian, arrastiko 17:00etan. Sarrerak doban izango dira eta maiatzaren 10etik aurrera hartu ahal izango dira udaletxean, 09:30etik 14:30era: maiatzaren 10etik 13ra herrikoak, eta 14an eta 16an edonork.

Ganadu azokea gogoan

San Isidro eguneko ganadu azokea jentetz gainezka egoten zan. Herriko jente askok jai har-

tzean eban egun horretan eta inguruko herrietako jentea hurreraten zan Zeanurira. Ganadu azokako protagonistak behiak izaten ziran; batez be limusina, pirenaiako eta asturiar errazako behiak egoten ziran ikusgai eta saria jasoten eban ederrenak. Baserriko



Artxiboko argazkia.

beste produktu asko be egoten ziran salgai. 2018an, ekoizleentzako 28 postu egon ziran eta artisauntzako beste 16. Azoka bitartean tailerrak eta erakustaldiak egiten ziran, gaztaia eta arpana egiten ikasteko, berbarako

Atzen edizinoia, 2019koa, 38. edizinoia izan zan. Orduan, aurreko guztiaz gainera, azoka bitartean, artxo txuleta dastaketea egon zan eta goiz guztian zehar herriko txistulariak eta trikitilariak girotu eban plazea eta inguruak. Arrastian idi-probak eta azkolariak egon ziran eta erromeria 23:00etan.

ARRATIA

Osasuna bermatzeko eske, eta kontrol sozial zein poliziala salatzen, manifestazioa egin eban ikasleak Igorren

Erredakzioa

"Ondorioak ikasleok ordaindu behar izateaz nazkatuta gaude" inoan pankarta baten atzean, 150 ikasle inguruk egin eban manifestazioa apirilaren 21ean Igorren, Ikamak deituta. Institutu greba egin eban.

Grebaren balorazio positiboa egin dabe deitzaileak, grebari "gehiengoak baiezkoa emonda, oso harrera ona euki eban". Manifestaziora beste eskualdeetako jentea be hurreratu zala dinoe, eta "normalean baino jentetsuagoa" izan zala eta Institututik be, besteetan baino jente gehiagok parte hartu eba.

Manifestazioaren amaieran, grebaren errazoiak azaltzen eban komunikadua irakurri eban Arratiako Ikamako bozeroaleak.

Euskal Herriko ikasle antolakundea da Ikama, 2020an sortutakoa, hezkuntza ereduak irauli eta neurria egindako hezkuntza egitasmoa eregitako burrukan egiten dauana.

Nazkatuta, haserre eta amorratuta

Greba eta manifestazioa ikasleak nazkatuta dagozalako izan zan. Alde batetik, "heziguneetan osasun baldintzak bermatu barik" garatu behar izan dabelako jarduna, eta bestetik, izugarri areagotzen joan dalako kontrol sozial zein poliziala eta hori dala-eta, ikasleak etenbarik dagozalako jazarpena sufriduten.

COVID-19aren aurretiko egiturazko arazoak azkartu eta azalera egin dituala krisi soziosanitario honek dinoe. "Eduki inposatu espainiar zein frantsesak, zenbait irakasleren autoritarismoa, azterketetan oinarritutako ebaluazio eredu, euskeraz ikasteko eskubide urraketea, kontrol soziala, euskal curriculumik eza, indibidualismoa, presino jasanezina, ikuspegi kritikorik eza, sorkuntza faltea..." salatu eban.

Horregaitik ezinbestekotzat jotzen dabe, ikastetxez ikastetxe antolatuten jarraitutea, ikasgelak hustu eta kaleak beteteko.

ARRATIA

Zerbitzu publikoen alde batu ziran Artean

Erredakzioa

Apirilaren 22an, gehiengo sindikalak grebara deitu eban zerbitzu publikoen alde, eta enplegu publikoa sortu eta konsolidetako. Arratian be batu ziran deialdira, eta, batez be, eskola eta haurreskolan izan eban inzidentzia grebak. Udaletxe gehienetan ez zan grebarik egin. EAE mailan be, Hezkuntza arloan izan eban

grebak jarraipenik handiena, %55ekoa sindikatuen arabera eta %29koa Jaurilaritzaren arabera.

Artean, konzentrazioa egin zan, Kafrangak andra taldeak deituta. Bertan 60 bat lagun batu ziran. Behargin publikoen behin-behinekotasun egoeran dagozan gehienak andrak dirala ekarri eban gogora Kafrangak-ek, 10etik 7, hain zuzen be. Nafarroako LABeko kideak atxilotu izana be

salatu eban andra taldekoak konzentrazioan.

Igorren, udal langileen %43k egin eban greba. Kultur Etxea zarratuta egon zan. Eskolan be irakasleen %42ak egin eban greba eta konzentrazioa be egin eban eskola aurrean.

Zeanuriko eskolan, irakasleen %75 inguruk egin eban greba eta Haurreskolan gitxieneko zerbitzuak egon ziran.



ARRATIA

Manifestazio jentetsua Igorren Maiatzaren Lehenean

LAB sindikatuak deituta, M1 Aldaketa da aukera lemapean, antolatzaileen arabera 300 bat lagun batu ziran maiatzaren 1ean Igorren egindako manifestazioan.

Erredakzioa

Kelvion-etik urtenda, Kultur Etxeko plazan amaitu eban ibilbidea manifestazioan. Han, 2020ean, 75 behargin hil zirala eta bat Zaldirako zabortegian desagertu zala eta 2021ean 18 behargin hil dirala eta urtebete eta hile bi berandua-goa Joaquin Beltranek desagertuta

jarraituten dauala ekarri eban gogora. Gazteen egoera be salatu eban beste komunikadu baten.

ELAK, CCOO eta UGTk urburuetan antolatu ebezan manifestazioak. LABek barriz, urburuetakoez gainera, herrietan be mobilizazioak egitera deitu eban, tartean, Igorren. Izan be, COVID-19a dala-eta, uriburuak itxiera

perimetrara ezarrita eukien eta manifestazio eskubidea indarrean egon arren, EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi eban itxiera perimetrara mantentzeko behar zala.

Aldaketa eta transizio "ekosozialista eta feminista" aldarrikatu eta burrukan jarraituteko deia egin eban LABek. "Eskualdeko mobilizazio gara Maiatzaren Lehenean

etorreragaz, mezu argi batez: burruka sindikal eta burruka sozialak bizten jarraituko dogu, enplegua, zerbitzu publikoak, zaintza

sistema publiko komunitarioa eta pensioen defentsan. Ez gagoz kikiltzeko, ez gagoz amore emeteko, burrukarako indarra daukagu!"



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu

Publizitatea: 649 979 115
begitu@topagunea.com
www.begitu.org

Apunta Zaituz!
94 673 91 16

ZULAIBAR
ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

atara zure talentoa

LAN-MUNDUA

- UNIBERTSITATEA
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- BATXILERGOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- D.B.H.
- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

Ate irekien jardunaldia
Malatzak 19 arrastiko 18:00etan

688 76 33 60
orientazioa@zulaibar.org

Zulaibar Auzoa 17
48144 Zeanuri (BIZKAIA)
Tel. 94 673 91 16
www.zulaibar.org

ZERGAITIK L.H.? **ZERGAITIK ZULAIBAR?**

LANERATZEA
% 80 ARTE
Gure heziketa zikloetan %80 arteko tituludunak lanean hasita

FORMAKUNTZA DUALA
IKASI + LAN KONTRATUA
Formakuntza Dualean ikasle kopuru handia ikasketak ikastetxe eta enpresan tartekatuz

KONTRATAZIO BEHARRIZANAK
HETEL elkartearen merkatu analisia
Enpresen kontratazio aurreikuspenak

FAMILI PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	%70
FABRIKAZIO MEKANIKOA	%66
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK	%63

Erasmus+ Praktika atzerrian
urratsbat Sortu zeure enpresa
ETHAZI Aktibo-kolaboratibo metodologia
Fp ikasi eta lan eginaldi berean

www.zulaibar.org | Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia | @zulaibarratia | zulaibarratia

Arabiako Herri Ikastetxeak

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidazkoak
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuntza
Lehen Hezuntza
Darrigorrezko Digarren Hezuntza
Batxilergoa
Hezuntza Zikloak

2 urtatu 18ra

EUKALIPTOA

Jon Hidalgo: "Arratian eukaliptoak hirukoztu da hamar urtean"

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak eukaliptoak Arratian daukan eraginaren gaineko eztabaida irekia antolatu eban aprilaren 8an. Han lau hizlarik heldu eutsien gaiari ikuspuntu desbardinetatik. Arturo Elosegi, EHUko katedratikoa; Jon Hidalgo Lurgaiak Fundazinoko presidentea; Txomin Diaz Letamendi, mendi ingeniaria eta Patxi Olabarrieta, Arratiako lur sail batzuen jaubea izan ziran gaia landu eben hizlariak.



Erredakzioa

Antolatzaileak eztabaidea abiapuntu moduan planteau eben, gaiari zelanbaisteko jarraipena emoteko. "Lehenengotik egoerea ezetu behar dogu, ze aukera dagozan analizau, eta hortik aurrera bidea egiten hasiko gara" esan eban Oihane Astui Makatzak taldeko kideak.

Bizkaian, eukaliptoak sartzean hasita baegoan be, pinuaren banda marroia dala eta, haren aldeko apustua gero eta handiagoa da. Baita Arratian be.

Zelan eragingo deutso eukaliptizazioak gure baliabide naturalai? Ze eragin daukie eukalipto landaketak lurrraren erabileran eta jaubetzan? Zelan eragingo deutso bizikidetzak sozialari? Zelan bermatu daiteke gazteriaren etorkizuna eta kalidadezko enplegua basogintza esparruan? Ze beste

aukera jasangarri eta barritzaile dagoz eta zeintzuk jarri dira mar-tan? Zein da jaubetza publiko eta pribaduen rola gure mendietako kudeaketa jasangarri baterako? Galderai erantzuten saiatu ziran konbidatuak. Politika publikoen gaia beste monografiko baten landuteko asmoa dauka Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak.

Eukaliptoaren eragina baliabide naturaletan

Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Arturo Elosegi EHUko ikertzaileak eukaliptoak ingurumenean daukan eraginaren inguruko txosten zientifiko-teknikoa egin eban oin dala urte pare bat. Kontua zan "ez ikerketa barriak egitea, dagoan informazioa batzea baino". Txosten zientifiko-teknikoa, EHUko ikertzaile bi eta Aranzadiko beste biren artean egin eben. Informazioa, Ibe-

riar peninsulako eukaliptadien gaineko artikuluko zientifikoetatik atera eben eta Europan dagozan beste baso mota bigaz alderatu ebezan; konifero basoakaz eta bertako basoakaz, hain zuzen be.

Eukaliptoak sano dabil ugaritzen Euskal Herrian eta EAERen azalerearen %3,2 estaltzen dau darduko. Eukaliptadien ustiaketa intensiboak lurzorua pobretuten dau eta biodiversidadeari eragiten deutso. "Eukaliptopean lurra hidrofoboago egiten da, hau da, eukaliptoak koipe batzuk daukaz eta lurra koipetsuagoa egiten da. Beraz, euria egiten dauanean, ura ez da hainbeste sartzean lur-rean, gainezka egiten dau, uriola handiagoak eta gero agorraldi luzeagoak eraginez. Gainera orbela toxikoa da eta beste landareen emalketea oztopatzen dau" azaldu eban Elosegik. Galizako basoetan egindako ikerketetan, eukaliptadietan, basoetan baino %64-99 liken hipofito gitxiago egoten dirala ikusi dala adierazo eban, eta bedarraren dibersidadea be %40 txikiagoa dala. Aranzadi Zientzia Elkarteak, lan ugari egin ditu Euskal Herrian anfibioen gainean eta ikusi dau eukaliptadietan anfibioen dibersidadea %50 eta ugaritasuna %90 txikiagoa dala. Gainera, txikiagoak dira eta sistema immune ahulagoa izaten dabe.

Hegaztien gaineko ikerketa asko dagoz eta ikusi da monolaborantza honeetan, %65 espezie gitxiago egoten dirala eta %75 beldar gitxiago. "Enbor zuloen faltea dago, zugatz zaharrik ez, egur hilik ez eta janari gitxi. Batez be basoko espezieak falta dira".

Erreketako bizitza be kaltetu egiten dabe eukaliptadiak. Hosto honek jaten dituen ornogabeak gitxi hazten dira eta azkar hiltzen dira. Eta ornogabeak oso garrantzitsuak izaten dira arraintzat.

Beste alde batetik eukaliptoak asko lotu da suteakaz eta gai

konplejua izan arren, argi dago eukaliptoak baso naturalak baino sarriago erretzen dirala. Galizian eta Portugalen sute handiak egoten dira. Beste faktore askok be eragiten dabe suteen sarritasunean, ez da bakarrik zugatza, gizartea be bada, baina "ni ez nintzateke lasai biziko etxe ondoan hain sukoia dan baso bat eukita" esan eban Elosegik.

Informazio asko falta dala baina dagoana sano konsistentea dala eta ikerketek ia guztiak eukaliptoaren inpaktua erakusten dabela ondorioztatu eban EHUko ikertzaileak. Pinua baino kaltegarriagoa da eta bertako basoa baino askoz okerragoa, batez be biodiversidadean. "Pasetan gabiz oso intensiboa zan ustiaketa batetik (pinua) oindino intensiboa-goa dan beste batera, eukaliptora. Dana horretara bideratuko bagendu oso txarra izango litzateke ingurumenerako eta iruditzen jata datozen belaunaldiak hori gogora arazo egingo deuskuela".

Arratiako baso azalerearen %73 landaketak

Lurgaiak Fundazinoko Jon Hidalgo kudeaketa ikuspuntutik heldu eutsan gaiari. Lurgaiak sortzeako erroa, gure ingurumenaren egoerea ez zala ona ikusi ebelako izan zala adierazo eban. "Baso ekosistema konplejua eta orekatua da. Zenbat eta giza eskuhartze txikiagoa izan, orduan eta orekatuagoa izango da. Espezieak bertakoak dira, ez dago basorik espezie exotikoz osotuta" eta baso baten aurrean Lurgaiaren helburua, konserbazioa dala eta ez ustiaketea esan eban Hidalgo.

Gaur 7.700 miloe biztanle gara Lurrean. Horrek esan gura dau baliabideak behar doguzala baina Lurgaiako presidentek larregitza jotzen eban, Bizkaian, 2019ko baso inbentarioaren arabera 131.000 hektareatik, 96.000

Erreketako bizitza be kaltetu egiten dabe eukalipto landaketak

hektarea, hau da %73, plantazi-
noak izatea. Hialgok emondako
datuen arabera, Arratia-Nerbioik
20.000 hektarea baso ditu eta
horretatik %72 landaketak dira.

Arratian lurraren %21 lur pu-
blikoa da, baina koniferoen %15
lur publikoan dagoz landatuta.
Hidalgoren eretxian "lurraren
jaubetasuna baino, egurra azkar
egiteko baldintzak" zerikusi han-
diago daukie landaketak egin
ala basoak manteniduterakoan.
Arratian eukaliptoak hirukoztu da
hamar urtean, baina azkenengo
urteetan bolada handia hartzean
dago. Banda marroiak, aurretik
egoan prozesu "soziala" azkartu
dau. "Ez daukagu pazientziarik
pinuak ustiatzeko 35 urte etxote-
ko; 35 urte horreetan ia hirutan
jasoko da dirua eukaliptoak ipini
ezkero. Banda marroien aurre-
tik be, errentagarriagoa zan euka-
liptoak pinua baino".

Bizkaian azalera handia dago
egurra egiteko, eta baita be, aza-
lera handia esku pribaduetan.
Horregaitik, Lurgaiak lurra erosi
eta lur pribaduak, ondasun ko-
munera bideratzen dituala azaldu
eban. "Gu, Europako iparraldean
egiten dan moduan, GKEren lur-
ren kudeaketaren alde gagoz".
Hidalgoren eretxian, erakundeak
ez dira gai izan, ondasun komuna
dan ingurumena kudeatzeko eta
"gizarte zibila, entidate txiki, han-
di eta norbanakoen bidez, antola-
tu egin behar da". Basoak kultura
ondarea be badira eta.

Lurgaiak 500 bazkide ditu
eta 18 urte daroetz lanean, 550
hektarea "ez-kudeatzen" ditue.
Horreetatik 450 hektarea inguru
pinu eta eukalipto landaketak zi-
ran. "Baso bat egon daiten, hori
erraztu egin behar da baina guk
ezin dogu baso bat egin. Landa
exotikoak kendu eta bertako ba-
tzuk sartu behar doguz prozesua
errazteko. Baina hori da dana,
gero naturari itxi behar jako. Aur-
ten 15.000 zugatz landatu doguz,
25 hektarea baso, barriro ikutuko
ez doguzanak".

Arratian, Zeanuriko Ipiñaburun
daukiez 5 hektarea, Igorren eta
Diman jaube bigaz dagoz berbe-
tan eta gero Patxi Olabarrietaren
hektarea bi, eukaliptoak ken-
teako.

Basoetatik urrundu, baso kultorea galdu

Txomin Diaz Letamendi mendi
ingeniarria da eta Bizkaiko Foru
Aldundian egiten dau behar bai-
na bere izenean egin eban ber-
ba Igorren. Ondo ezetuten dauz
Arratiako basoak, eskualdean
egin dau behar eta. Arratia-Ner-
bioi eskualdean, hasikeran Ehiza
eta Arrantzako basozaina izan
zan, gero basoetako basozaina
Zornotza, Lemoa, Igorre, Arantzazu
eta Zeberion, eta gero, BFAko

Mendi Zerbitzuan atalburu izen-
tau eben eta Arratia-Nerbioi eta
Durangaldean jardun eban. Oin,
Ingurumen Zuzendaritzako Natu-
ra Ondarea Zaintzeko Zerbitzuan,
Naturgune babestuak kudeatze-
ko atalburua da eta Naturgune
babestuen zaintzaz arduratzen
da, tartean, Gorbeien zaintzaz.

"Momentuz Arratian eukalipto-
ak azalera txikia hartzean dau
eta eragin gitxi dauka" baina
hektareak irabazten doa eta ge-
hienak landaketa gazteak dira.
Pinu insigniak atzen hamarka-
dan 1.500 hektarea galdu ditu.
Ha-ta guzti be, banda gorriak eta
marroiak ez dau asko jo Arratia
eta pinudi asko dagoz oindino.
Baina eukaliptoaren bilakaerak
sortutako kezka soziala heldu
dala Arratiara esan eban Diaz Le-
tamendik.

Lurzoruaren higadura eta ga-
lerearen garrantzia be aitatu
ebazan hizlariak, zorua eratzeko
"ehunka, milaka eta miloeka"
urte behar izaten dira eta. Jar-
duera intensiboak eragin zuzena
dauka lur higaduran.

Bere eretxian, gizartea basoe-
tatik urrundu eta baso kulturea
galtzean dabil. Lehengo baso
jaubeak "hil edo zahartu egin dira
eta belaunaldi barriak ez dabe
basora joan gura. Basoak ez dira
erakargarriak". Horregaitik, gaz-
teak ez dabela Mendi Ingeniaritza
ikasi gura esan eban eta, gazteak
erakarteko, basoak hobetu eta
dibersifikatu behar dirala.

Eukaliptoak landatzeko errazoiak
batez be epe laburrari begiratzen
jakola bakarrik da. Baina "natura
ez da lantegia" eta modu ez ja-
sangarrian kudeatu ezkero, epe
ertainean ez dau irabazirik emon-
go. Hori gertatu da pinuagaz.
Sasoi baten pinuari "urre berdea"
deitzean jakon, baina denpora
bat pasauta urre izakerea galdu
eta berdea "gorri" edo "ma-
rroi" bihurtu da, igartu egin da:
"merkadu errazoiak, produktibi-
dadearen jeitsiera, gaixotasunen
agerraldia... Izan be, espezie
bakarreko basoak gaixotasunen-
tzako hazkuntza salda aproposak
dira. Baina ez dogu ikasten pi-
nuagaz gertatuko ikusita, zelan
egiten dogu eukaliptoaren aldeko
apustua?" galdetu eban. Eukalipto-
ak arazo larriak emongo ditu,
beste leku batzuetan emoten
dabilen moduan; espeziagaitik
beragaitik eta kudeatze modu
intensiboagaitik.

Eukaliptadiak ez dira basoak,
"laboreak" dira eta agronomia
industrialia apliketan da ustiaketan,
lurra kontuan izan barik. Leku
aldapatsuetan egoten dira,
baina ingeniariaren eretxian,
baserri ondoan egon beharko
litzateke, ortuan, "arto sailak eta
patata sailak dagozan moduan",
ez mendietan. Eukalipto landake-

tetara joateko, mendietan pistak
zabaldu behar izaten dira eta
aldapearen ondorioz higadura
handia gertatzen da. Horregaitik
oso garrantzitsua da eukaliptoak
non sartu arautzea.

Larrialdi klimatikoaren erdian
egonda, ekologiaren alde egin be-
har dogula eta pinuaren porrotaren
ostean, barriro ebatziak hartzeako
momentuan gagozala esan eban.
Bertako haretaren alde eta baso
mistoaren alde egin behar dala uste
dau. "Begiratu behar da zelan egin
daben beste batzuek. Badagoz bes-
te basogintza ereduak gureaz apar-
te. Mendiak berez emoten dauana
aprobetxetan jakin ezkero, lan erdiak
eginda daukaguz". Naturan oinarri-
tutako basogintza integratzailea Eu-
ropako herrialde askotan erreferen-
tziako eredu bihurtu da gaur egun.

Etxe inguruan eukaliptorik gura ez

Patxi Olabarrieta oin dala 40
urte heldu zan Dimara, baserri-

Eukaliptoak arto sailak

eta patata sailak

dagozan moduan egon

beharko litzateke,

ortuan, ez mendian

ra eta orduan etxe inguru guztia
pinuagaz beteta egoala kontau
eban. Apurka-apurka pinuak bo-
taten joan dira eta oin, sei-zortzi
urtetik hona, Olabarrietaren etxe
inguruan, eukaliptoak landatuten
hasi ziran. Baina inguru horregaz
ez dagoz gustura etxean eta lur
hori erosteko aukerea ikusi eben.
Hektarea bi erosi dabez, eta aka-
so beste bat eta erdi be erosiko
dabela jakinarazo eban. Hori
dala-eta, Olabarrieta Lurgaiak Fun-
dazioagaz ipini da kontaktuan.
Euren asmoa, eukalipto guztiak
bota eta bertako basoa egitea da.
"Ez dogu eukaliptoak gura gure
etxe inguruan eta uste dogu ba-
tzuetan modu pribaduan egin be-
har dirala gauzak, instituzinoak ez
diralako ausartzen". Bere ustez,
oin lurra merke dagoan honetan,
Foru Aldundiak erosi beharko
leukez lurra bertako basoa bul-
tatzeko, baina erakundeak egin
ezean, modu pribaduan egin be-
harko dala uste dau.



begitu

arratia
ubide
zeberio



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAIKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarteak Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!



begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizitatea diseinatzeko deutsu.

Publizitate eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizitatea:

649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

arnasa gara

EGUNEROKOAN ZER?

Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen amasguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

www.arnasagara.eus

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra astero bideo bat eta elkarrizketa bat



ERROTA BERRIKUNTZA TEKNIKARI BILA DABIL



ZER ESKATZEN DA?

- Goi mailako ikasketak izatea
- Aholkularitzan, berrikuntza arloan esperientzia izatea
- Enpresa eta administrazio arteko programak ezagutzea
- Euskara lan hizkuntza izatea
- Pertsonetik enpatia eta lanarekiko proaktibotasuna baloratuko da
- Eskualdeko enpresa ehunaren ezagutza baloratuko da
- Gidabaimena eta kotxea izatea

ZER ESKAINTZEN DA?

- Orain 5 urte sortutako arratiako garapen sozioekonomikorako proiektu baten parte izatea



ERROTAREN PARTE IZAN NAHI BADUZU, bidali zure kurrikulua info@errotta.eus -era maiatzaren 18a baino lehen



Arantzazu



Arratzako Udala



Arteako Udala



Bedia



DIMA



IGORRE
Herriaren zerbitzua



LEMOA UDALA



ZEANI ZURI



Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

MATRIKULA

Epea: maiatzean

- ONLINE: www.arratiakomusikaeskola.eu

* INFORMAZIOA:

- Web orrian
- Astelehenetik ostiralera
10:00etatik - 13:00 arte
- Telefonoa: 94 631 73 52



- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu

arratia.musikaeskola@gmail.com

RALLYA

Joana Kamiruaga kopilotu izan da
Lea-Artibaiko rally-an

Erredakzioa

Maiatzaren 1ean jokatu zuen Lea-Artibaiko rally-a, Euskal Herriko Rally Txapelketetako bat, denporaldi honetan egin dan lehenengo. Arkaitz Uranga pilotu markinarragaz, Peugeot 208 R2an, Joana Kamiruaga dimoztarra ibili zuen kopilotu. Zazpigarren egin eben saikapen orokorrean eta 3 klaseko garaikurra lortu eben.

Euskal Herriko Txapelketako rally-etan eta Kantabriako R2 Kopan parte hartu gura dau Kamiruagak. Normalean rally denporaldia martian hasten da, Gabiriako rallysprint-agaz, baina aurten ez da jokatu COVID-19a dala-eta. Euskal Herriko Txapelketako bigarren lasterketea, apirilaren 24an Azpeitian jokatu behar zana be, bertan behera geratu zuen eta Lea-Artibaikoak, publiko barik eta CO-

VID protokoloagaz emon eutsan hasikerea denporaldiari.

Rally-ak zati bi izan zituan. Lehenengo Urrutxuan hasi zuen eta Munitibar eta Bolibarretik pasata, Trabakuan amaitu eban 22 km-ko ibilbidea, bitan egin eben partaideak. Bigarren zatia be, Eibartik Etxebarriara, bitan egin eben. "Eguraldi aldakorra eta leku batzuetan lupetz asko egon zuen. Ha-ta guzti be dana ondo urten zuen eta denporak hobetuten joan ginan mangarik manga eta atzenengo bueltan bigarren denpora onena egin genduan. Oso pozik amaitu genduan rallya" azaldu deutso BEGITURI Kamiruagak.

Hirugarren denporaldia

Kopilotu dimoztarra 2019an hasi zuen rally-etan, Joseba Iñarreagaz. "Nire debuta izan zuen Lesakan 2019an. Oso rally berezia izan zuen, ilusino handia euki neban eta oso ondo joan zuen eta azkenean sentidu neban zer zuen. Oso rally polita izan zuen. Malerrekakoa be asko gustetan jata, oso leku ederra da".

Hurrengo urtean, 2020an, hasitakoa hobetuten joan zuen Kamiruaga, Daniel del Villar pilotu nafarragaz. Aramaioko rallysprint-a berezia izan zuen beretzat "etxe ondoan dago, oso rally polita da eta gainera sano denpora onak egin genduzan, hobetuten joan ginan hasikeratik amaierara eta azkenean hirugarren gelditu ginan saikapen orokorrean". 3 klaseko garaikurra be lortu eben lasterketa honetan, baita Gernikakoan be.



PELOTEA

Ekhi Ziarrusta Bizkaiko Banakako
Trinketeko txapeldunorde

Erredakzioa

Maiatzaren 2an jokatu zuen finala Abadiñon. Dimako pelotariak ezin izan eban txapela Arratiara ekarri, Asier Aspuru 40-29 irabazi eutsan eta.

Sano txapelketa ona egin dabe Txumluxuetako Ziarrusta anaiak, Ekhi finalera ailegau zuen eta Lur finalaurrekoetara. Aspuru nagusitu jakien biai.

Xabier Rekalde eta Narbaiza
be txapeldunorde klubn artekoan

Klubn arteko Bizkaiko Txapelketako finala Zeanurin jokatu zuen apirilaren 24an. Dimako Xabier

Rekalde eta Orozkoko loritz Arbaiza txapeldunorde izan ziran Gazte mailan, Julen Olaizola eta

Arkaitz Eskuza Orozkoko beste bikotearen kontra 22-8 galdu ostein.



HALTEROFILIA

Bruno Soto Espainiako
Txapelduna

Aprilaren 17an jokatu zuen Madrilen halterofiliako Espainiako Txapelketea eta Junior mailan, Bruno Soto Fernandez lemoztarrak hiru urrezko domina lortu ebazan bere pisuko kategorian.

Erredakzioa

Arrankadan 114 kilo altxau ebazan, eta denpora bitan 138 kilo. Hirugarren dominea, guztira 251 kilo altxau ebazalako izan zuen.

Igaz be txapelduna izan arren, alde zuretik lemoztarrak ez eukan erraz txapela mantendutea, ukondoko minez ekin eutsalako lehiaketari. "Ezin izan ebazan bere markak hobetu, ukondoko minez dabilelako aspaldi eta horrek ez eutsalako itxi lehiaketea behar dan moduan egiten" azaldu deutso

BEGITURI Bruno Jose Soto aita eta entrenatzaileak.

Ha-ta guzti be, eta hamasei urte baino ez dituan arren, onena izan zuen Junior mailako bere kategorian. Lemoztarraren kategoria 89 kilokoa da; hau da 81 eta 89 kilo pisatzen dabenen artekoa eta Junior maila 20 urte baino gutxiagokoa. Bera izan zuen bere kategorian gazteena.

Abuztuan eta urri lehenengoan, 17 urtez azpiko Espainia, Europa eta Munduko Txapelketetan parte hartu gura dau.



Bruno Soto.

PELOTEA

Elezkano finalera

Erredakzioa

Elezkano II.ak eta Zabaletak maiatzaren 9an Bilbon jokatuko dan finalerako saikapena lortu dabe finalaurreetako hiru partidua irabazita. Iruñean Mariezkurrena II. eta Altuna III.aren kontra erraz irabazi eben 22-7ko emaitzeagaz apirilaren 17an jokatutako lehen partidua. Bigarrena be erraz irabazi eben Bilboko Bizkaia frontoian apirilaren 25ean 22-8ko emaitzeagaz Peña II. eta Albisuren kontra. Hirugarren partidua ostera 22-13 galdu eben Labrit pelotalekuan maiatzaren 1ean Xabier Tolosa eta Ezkurdiaren kontra.

Promozino Mailako Txapelketan ostera, Oier Etxebarria Igorrekoak eta Salaberriak finalaurreetako lehen partidu biak galdu ebazan eta ezin izan eben finalerako txartela lortu, ligaxkako onenak izan ziran arren. Hilaren 16an, hiru finalaurreetako lehena jokatu eben Zabala eta Tolosaren kontra Azkoitian eta 22-21 galdu eben. Bigarren partidua be galdu egin eben 22-18 Elordi eta Garmendiaren kontra. Atzen partidua ostera 22-11 irabazi eben maiatzaren 2an, Bilbon Alberdi eta Salaverri II.aren kontra.

MENDIA

Alex Txikon Everesteko Oinarrizko Kanpamentuan dago

Erredakzioa

Manaslutik itzuli zantetik 6 aste baino ez ziranean pasau, aprilaren 23an, abiatu zuen Txikon barrero Nepalera, oingoan, Everest mendia (8.849 metro) oxigeno artifizial barik igoten saiatzeko. COVID-19aren pandemia dala-eta, turista eta espedizinoen diru iturri garrantzitsua galdu dau Nepalek, eta herrialdea "babesten jarraitutea" da espedizino honen beste helburuetako bat.

Aprilaren 29an Oinarrizko Kanpamentura (5.360 metro) heldu zuen, ibilbide klasikotik, Nepalgo isurialdetik igoten saiatzeko.

Everest 2021 izeneko espedizi-

no hau, oin arte Txikonek gauzatu dituan proiektuak baino askoz espedizino txikiagoa da. Taldea, Txikonek, Iñaki Makazaga kazetariak eta Sendoa Elejalde argazkilarik osotuten dabe. Proiektua apalagoa emon arren, beretzat "apustu personalagoa" dala azaldu dau Txikonek.

Oinarrizko Kanpamentuan emondako lehen orduetan, Txikon taldearen dendak instalau eta

tresnak egokitzen ibili zuen. "Ondo gagoz, lasai, nahiz eta espedizino joan-etorri handia egon. Maila fisikoa oso ondo nago eta saiatzeko gogo handia daukat. Gainera, azken egunetan, inguru honetara beste espedizino batzuetako adiskide handiak datozala irakurri dot eta eurakaz alkatzea espero dot", azaldu dau Txikonek bere sare sozialetan.

Argazkia: Sendoa Elejalde.



MENDI LASTERKETAK

Mendiko Euskal Selekzinoak Espainiako Txapelketea irabazi dau

Erredakzioa

Selekzinoan, Onditz Iturbe Igorreko lasterkaria egon zuen. Maiatzaren 2an jokatu zuen Jaenen mendiko lasterketako Espainiako Txapelketea. Igorrekoak, bosgarren egin eban eta Euskal Selekzinoak irabazi eban bai andrazkoetan, bai gizonezkoetan.

Lasterketeak 28 kilometro eta 2.300 metroko desnibel positiboa izan eban. Onditz Iturbegaz batera, Amaia Razkinek, Andrea Garaik, Eztizen Duquek, Maite Maiorak, Mayi Mujikak eta Oihana Kortazarrek osotu eban Euskal Selekzino taldea.

BM taldea, Espainiako Trail txapeldun

Lau mendiko lasterkarik osatu eban Bilbao Atletismo Santutxu BM taldea Lienres-en (Kantabria) aprilaren 24an jokatuako Espainiako Trail Txapelketan, eta euretako bat Onditz Iturbe izan zuen. Lasterketeak 16 kilometro izan eban 590 metroko desnibelagaz. BM Bilbao taldeko lau mendiko korrikalariak lehenengo hamarren artean sartu ziran eta taldea txapeldun izan zuen. Iturbek seigarren egin eban 1:15:06ko denporeagaz. Taldeko Virginia Perez izan igazko txapelduna baina aurten ezin izan zuen egon errazoi personalakaitik. Dana dala, taldeak Espainiako onena dala erakutsi eban Kantabrian.



Onditz Iturbe.

FUTBOLA

Arratia kategoria mantentzeko burrukan

Erredakzioa

Arratia taldeak aprilaren 25ean husna bardindu eban Logroñoko Atlético Revellín taldearen kontra etxetik kanpo, eta maiatzaren 2an bana bardindu eban Mulier talde nafarraren kontra Igorreko Urbieta zelaian.

20 jardunaldiren ostean sailkapenean bederatzigarren postuan dago Arratia 20 puntugaz.

Datorren partidua Castejon taldearen kontra jokatu dabe etxean, maiatzaren 9an goizeko 12:00etan.

Futbol topaketak

Arratiak 2007 eta 2016 urteen artean jaiotako nesken futbol topaketak antolatu eban maiatzaren 2an Urbietan. Bertara 36 lagun hurbildu ziran eta futbolaz gozatzeko entrenamendu teoriko praktikoa eron eban aurrera. Era berean, Arratia Futbol Taldearen proiektua ezetu eta Urbietako instalakuntzak ikusi ebezan. Futbolearen ez dabizan nesken animetea dauka helburu ekimenak eta nesken futbolera hurbildutea sustatu gura dau Arratiaren zuzendaritzaek, Asier Etxezarraga presidentearen esanetan.

Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII.zirkuitua - 2021
Apirilaren 26tik maiatzaren 30era
www.topagunea.eus/laburbira

<p>ATERPEAN ATERI Ruben Crespo</p>	<p>NIGANDEK Imanol G. Gurrutxaga</p>	<p>GAME OVER Irene Diaz Polakino</p>
<p>ILUNABARREAN ESAN Xabier Vallina</p>	<p>BABARRUN TXAPELKETA Andoni Múz de Madina eta Julen de la Serna</p>	<p>DATSEGIT Aitor Arrati</p>
<p>NIRE EGUNEROKO MATTEA Eliasa Castagnet, Mariel Fuchs, Ximena Fuchs</p>	<p>AGUR Iñigo Acha Gómez</p>	<p>EZAGUTU LABURMETRAIAK</p>

TOKIA:
Areatzako Udal Aretoa

EGUNA:
Maiatzak 7, barikua

ORDUA:
19:30

ANTOLATZAILEA:
Zertu Kultur Elkarte/Areatzako Udala

Antolatzailea: **euskarazko topagunea**
Dabesleak: **EUSKARAZKO TOPAGUNEA**
Bizkaia: **Bizkaia**
Laguntzailea: **TOKIKOM**

ZINEA

Zinegoak jaialdiko sei film labur ikusgai Igorren

Erredakzioa

Maiatzaren 14an, 19:00etan, Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans 18. Nazinoarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdian izandako sei film labur ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. *Leo y Alex en pleno siglo XXI*, *La amante*, *Mall*, *Red Bay*, *Karaoke* eta *Hemen. Gaur. Berriz* dira filmok.

Eva Libertad eta Nuria Muñozek zuzendu eben 2019an, *Leo y Alex en pleno siglo XXI*, 7 minutuko filma. Neska gazte bien istorioa kontetan dau pelikula honek. Parranda egin ostean, Alex bere ohean esnatuko da Leo pisuki-dea ondoan daukela eta goiz horretatik aurrera ezer ez da gauza bera izango bien artean.

Pati Cruzek zuzendutako 11 minutuko *La amante*, barriz, andra edadekoak dira protagonista. Bere senarraren hiletan Tetek Angelaren bisitea jasoko dau eta antxinako sentimentuak biztuko jakoz.

Jerry Hoffmann alemaniarren *Mall* pelikulearen protagonista mutil txiki bat da. Didi jostailu bat lapurtuten harrapauko dabe eta haren aitak ez dau asmatuko zelan jokatu.

Juan Antonio Cortes Amunarrizek 1943ko Hondarribian girotu dau *Red Bay* ia ordu erdiko pelikulea. Euskeraz eta gaztelaniaz dago. Martin gazteak familiaren



baserrian egiten dau lan eta bere ama Frantziako erresistentziako sare klandestinoan dabil. Martinek harreman bat biziko dau pilotu igeslari batezag.

Hurrengo filma, *Karaoke*, Axel Rezinovsky argentinarrak zuzendutakoa da. Film honetako protagonista be Martin izeneko gazte bat da. Gazteak antolatutako jai baten, lagun minaren neba Nacho egongo da eta Martin konturatuko da lehenengo aldiz maitemindu dala.

Euskerazko pelikula batezag osotuten da seikotea. Aitor Gametxo Zabalak 2020an zuzendutako *Hemen. Gaur. Berriz* 9 minutuko filma da hau. Bilboko Aste Nagusian alkar ezetuten daben mutil biren istorioa kontetan deusku honek.

ZINEKLUBA

Despopulazioaren gaineko filma eta zuzendariagaz solasaldia Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Maiatzaren 6an, 18:45ean, *El cielo gira* (2004) dokumentala egongo da ikusgai Lasarte Aretoan eta Mercedes Alvarez zuzendariagaz komentetako aukerea egongo da, bertaratutakoa da eta.

Dokumentala Aldealseñor (Soria) herrian eginda dago eta Pello Azketa pintorea, eta herriko biztanleak dira protagonistak. Dokumentalaren grabazioa 2002 eta 2003 artean egin zan. 2006ko eroldaren arabera 46 biztanle bizi ziran bertan. Soriako Tierra Alta eskualdeko paisaia eta kulturearen memoria eta landa despopulazioaren testigantza da filma, baina saiatzen da harago joaten, denporearen

joana eta bizitzaren laburtasunari buruzko gogoeta unibersala egiten hain zuzen.

Filmak sari asko jaso ditu, tartean, 2005eko Nazinoarteko Kritika eta Publikoaren Saria, BAHIFen, Buenos Airesen.

Mercedes Alvarez

Mercedes Alvarez Aldealseñoren jaio zan 1966an eta bertan jaio-tako azken personea izan zan. Hiru urte eukazanean, Iruñeara joan ziran biziten. Psikologia ikasi eban EHUUn eta zazpi urtez lan egin eban TVEn.

Bere beste lan batzuk, *El viento africano* (1997), *Mercado de futuros* (2011) eta *Cinco elementos para cualquier universo* (2012) dira.

KONTZERTUAK

Musika eta garagardaoaren jaia Areatzan maiatzaren 29an

Areatza Musik & Brewing Musika eta Kultura Elkarteak jaia antolatu dau hilaren 29rako, Areatza Musik and Beer izaten dan astegoienean. Jaialdia urri bigarrenaren lehen astegoienean egin gura dau antolakuntzeak.

Erredakzioa

Los Brazos, The Renegados eta Triple Zero Band izatekoak dira Areatzan. Izena Areatza Urtaroka webgunean emon daiteke.

Eskolako aterpean egingo dira kontzertuak eta 150 lagunentzako aforoa prestatuko dau antolakuntzeak. Lau personako mahaietan egongo da jentea ezarrita eta sarrerea ordaindu beharko da. Horren truke garagardaoa eta Areatzako Antxon Iturriagaren eta Igorreko Askibileko ahuntz gaztaiak dastatu ahal izango dira.

Taldeak

Bilbo inguruko Los Brazos hirukoteak rock and rolla jotzen dau. Izena, Gov't Mule taldearen *Broke down on the Brazos* kantuan aitatutako Texasko Rio de los Brazos de Dios erreko izenetik dator. Taldea, Guillermo Gutierrezek, "William" (abotsa eta gitarrea), Alberto Chamorrok, "Koki" (bateria) eta Jose Migel Gandarak, "Txemi" (bajua) osotuten dabe. Lau disko ditue kalean, *Delay 10 Classic Tracks* (2012), *Welcome to Los Brazos* (2013), *GAS* (2015) eta *LIVE*

2015-2017 (2017); baita bideoklip bat be *Magic* izenekoa.

The Renegados taldea Bilboko lau musikarik osotuten dabe. Taldeak ibilbide luzea dauka. Taldearen soinua "poliedro" baten moduan definitu dabe hainbatek. "Arpegiz eta ertzez betetakoa, bluesa eta boogie-a rockagaz nahastuten dira bertan eta hegoaldeko rockak hard rock britainiarraz bat egiten dau. Psikodelia zertzeladak be entzun daitezke han eta hemen". Taldeak, lau kantuz osotutako disko bat dauka, *Dead Man's Hands* izenekoa.

Kantuok gaztelaniaz dagoz eta 1970eko hamarkadako hard rockean oinarritutako soinua daukie.

Triple Zero Band be, Bilboko hirukotea da. Sustrai amerikarrak dituan power musikea egiten dau, hard rock-a eta rock hegoamerikarra buztartuz. 2017an sortu zan taldea eta disko bat kaleratu dabe, *Brothers* izenekoa. Diskoak, zortzi pieza ditu, eragin askotako fusinoa dakarrenak. Iñigo Garridok (abotsa eta gitarrea), Aitor Ruizek (bajua) eta Alex Fernandezek (bateria) osotuten dabe taldea.



IPUIN LEHIAKETEA

Irati Urutxurtuk eta Paule Orozkok irabazi dabe Arteako Ume eta Gazteentzako Ipuin Lehiaketea

Erredakzioa

Umeen kategorian (8-12 urte bitartekoa) hiru sari emon ebazan Arteako Udalak. Lehenengoa irati Urutxurtuk jaso eban, *Amets zoragarri bat* lanagaitik; bigarrena, Mariola Ferrosek *Maia eta bere istoria* ipuinagaitik eta hirugarrena, Luka Orbezuak, *Egia ala ametsa* kontakizunaren egileak. Gazte mailan (13-17 urte bitartekoa) narrazio bakarra aurkeztu zan eta saria jaso eban. Paule Orozkok *Aita... zer gertatu da?* lanagaitik jaso eban saria.

Sari banaketea apirilaren 24an izan zan eskolan. Lehenengotik, *Erreka Mari* txotxongilo ikuskizuna ikusi eben bertaratutakoak.

"Aurretik, ume irabazleen familiakaz egin genduan berba, hareek jakiteko euren umeak ziralda irabazleak eta zapatu horretan etorteko sari banaketara. Baina umeak ez ekien ezer eta antzezlan amaitu zanean, hasi ginan sari banaketeagaz" azaldu deutso BEGITURI Ainare Sanchez zinegotziak. Sariak Elkar liburudendan gastetako bonuak izan ziran.

Lehenengo edizinoa

Aurtengoa Arteako Ume eta Gazteentzako Ipuin Lehiaketearen lehenengo edizinoa izan da, baina urtero egiteko asmoa daukiela, umeak eta gazteak idazten animetako dino zine-

gotziak. Aurtengoa, "pena bat izan da gazteak ez animetea" baina datorren urtean, gazte gehiagok parte hartzea espero dau Sanchezek, aurtan parte hartu daben 12 urtekoak, datorren urtean gazte kategoriarra pasauko dira eta.

Irakurle taldea

Datorren ikasturtean, Alaine Agirre idazleak gidatutako nagusi eta umeentzako irakurle taldeak antolatu gura dauz Udalak. Hilean behin izango da eta aurretik emongo dabe irakurri beharreko liburuaren barri. Maiatzean zehar, etxeetan bananduko dabe Alaine Agirrerri egindako alkarrizketa bat zehetasunakaz.

DIMESTEN

Hezitzaileak kontratatuko lan-boltsea zabaldu dabe Diman

Erredakzioa

Dima Herri Hezitzailea Dimesten egitasmoaren proiektua garatzeko, aisialdirako aldi baterako hezitzaileak hartzeako lan-boltzarako deialdirako oinarriak onartu dauz Dimako Udalak. Ludotekan, gaztelekuan eta udalekuan, sortzean diran hezitzaile lanpostuak beteteko. Interesatuak, maiatzaren 14ra arte aurkeztu lekiez eskariak udaletxean.

Lehiaketan parte hartzeako ezinbestekoa da, beste gauza batzuen artean, langabezian egotea udal kontratua hasi orduko edo behar bateragarria izatea, kontratu bien artean zortzi orduko lan jardunaldia gairatu barik. Titulazioari jagokonean, 2 LH Titulua, Goi Mailako Batxilergoa edo maila bereko ikasketak amaituta edukitea eta aisialdirako begirale titulua, izakera sexualeko deliturik ez izanaren ziurtagiria eta elikagaien manipulatuzaile karneta izatea eskatzen da.



FILMAK

Laburbirako emonaldiak Areatza eta Ubiden

Areatzan maiatzaren 7an, 19:30ean udaletxeko Areato Nagusian eta hurrengo egunean Ubiden, 18:30ean Ortuzarren izango dira emonaldiak.

Erredakzioa

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Laburbira euskerazko film laburren zirkuituak aukeratutako 8 film ikusi ahal izango dira. Aur-

ten, 2019tik hona zuzendari hasi-barri eta amateurrek ekoiztutako 8 lanek osatzen dabe emonaldia. XVIII. edizino hau, apirilaren 26tik maiatzaren 30era izango da. Zirkuitua osatzen daben zortzi



filmak, Ruben Cresporen *Aterpean ateri*; Imanol G. Gurrutxagaren *Nigandik*; Ilune Diaz Pollacinoren *Game Over*; Ekhiñe Aizkorbe, Sara Alonso, Irati Egibar, Julene Etxauri,

Xabier Vallina eta Irene Zalduaren *Ilunabarrean esan*; Andoni Martinez de Madinaren *Babarrun txapelketa*; Aitor Arruti Agirreurretaren *Datsegit*; Ximun Fuchs, Eñaut Castagnet eta Manex Fuchs-en *Nire eguneroko maitea* eta Spookyphe-ria Productions-en *Agur* dira.

Honeetako batzuk Zinebi eta Mendifilm Festival jaialdian aurkeztutako lanak izan dira 2019-2020 bitartean eta beste batzuk metraje laburreko lehiaketetan sariak jaso dabez: Huhezinema eta Kameratoian hain zuzen be.

Zertu Kultur Elkarteak antolatzen dau Laburbira Areatza eta Ubiden, Udalen babesagaz. Zertu Kultur Elkarte, BEGITU argitaratzen dauan alkarte, euskera alkarten federazioa dan Euskaltzaleen Topaguneko partaidea da.

BERBALDIA

Saguzarren gaineko berbaldia egingo dau Joxerra Aihartzak

Erredakzioa

Saguzarrak ere arazo ekologikoen erakusle titulupeko berbaldia emongo dau Joxerra Aihartzak Biologian doktore eta EHUko irakasleak, maiatzaren 13an, 19:00etan, Areatzako Udal Areatoan. Berbaldia Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatu dau, Areatzako Udalak antolatutako Areatza Urtaroka programearen barruan. Izen emotea Areatza Urtaroka webgunean edo udaletxera deituta egin daiteke.

Euskal Herrian 27 espezie sa-

guzar bizi dira eta horreetatik 19 Gorbeian. Saguzarrak gainbehera doaz. Espezie bakoitxak bere lekua dauka ekosisteman eta desagertzeak gizakiongan eragin zuzena dauka. Izan be, Euskal Herriko saguzar espezie guztiak insektu jaleak dira eta insektu horreetako asko gaixotasun edo izurrite eragileak dira.

"Zer dakigu saguzarren gainean? Zer funzino beteten dabe? Zelan eragiten deutso gizakiak saguzarren biziraupenari? Eta alderantziz? Hortaz, zein izan daiteke animalion desagertzearen eragina etorkizunean?" gal-



detzen dabe antolatzaileak. Galdera honeei guztiai erantzungo

deutsez Aihartzak Areatzako berbaldian.

DUNBA

Arteako kirola eta osasunari buruzko inkestea

Artea eskolako 3. zikloko ikasleak

Gu Artea eskolako hirugarren zikloko ikasleak gara eta aurten giza gorputza proiektua landuten gabiz. Arteako herritarren osasun maila aztertzeko inkesta bat prestatu dogu gura dauanak bete dagian.

Erraza dirudian arren, lan itzela egin behar izan dogu inkesta prestatzeko.

Inkestan bi motatako galderak agertzen dira, osasunari buruzkoak eta kirolari buruzkoak. Adibidez, honeek dira inkestan agertzen diran galderetako batzuk:

OSASUNTSU ZAUDE?

BAI EZ EZ DAKIT

ZER JATEN DUZU OSASUNTSU EGOTEKO?

ZENBAT KIROL EGITEN DUZU? (BALORATU: 1 GUTXI - 5 ASKO)

1 2 3 4 5

Gure inkestan galdera gehienak itxiak dira, baina ikusten dozen moduan formatu desbardinak

be erabili doguz: aukeratzekoak, baloratzekoak eta galdera irekiak.

Inkestak Aste Santurako amaituta egozan eta gutariko bakoitxak etxera, hamar inkesta eroan ebazan, oporretan herriko jentearen

artean banandu eta beteteko. Aste Santua amaitu ondoren inkestak gelara ekarri genduzan eta beteteko falta ziran inkestak eskolako ikasle, irakasle eta langile guztiai banandu geuntsezan. Guztira 200



inkesta inguru bildu doguz. Oindino ez da lana amaitu, oin dator lan gogorra! Datu guztiak bildu eta interpretatu behar doguz.

BEGITUKO irakurleai eskainitako bertsoa:

Aurten nahi dugu ikasi denon osasuna zaindu egin behar da guk jaten duguna markatzekoak dira gehienak laguna beraz ondo pentsatu zure erantzuna.
Doinua: Maritxu nora zoaz.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, coaching edota mindful eating-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoi eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezker idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezker deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Areatzako Udalak emondako Areatza bisitatzeko koadernoak liburuak.

Xabier Agirretxe (Artea)
Iñigo Aranbarri (Lekeitio)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Natura bizia filmarako.

Nuria Korta (Igorre)
Maiana Bustinza (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • sema@topagunea.com

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizitatea: 649 979 115
begitu
begitu@topagunea.com
www.begitu.org

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukanduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

BEGITUK **kazetaria** behar dau

Zertu Kultur Elkartearen kazetari zereginetarako lan eskaintzea.

Eskatzen dogu

Kazetaritza edo ikus-entzunezko ikasketak.
Webgune eta sare sozialen kudeaketan ezagutza.
Argazkigintzan eta bideogintzan ezagutza.
Idazketa maila altua.
HABEko C1 euskera maila edo baliokidea.
Izaera dinamikoa eta hartu-emonetarako gaitasuna.
Gidabaimena eta motordun ibilgailua izatea.

Balorauko dogu

Erredaktore beharretan esperientzia.
Arratiarra izatea edo Arratian bizitea.
Maketazino eta diseinu ezagutzak.
Bizkaiera idatzizko ezagutza.
HABEko C2 euskera maila.
Kurrikulumagaz batera, argitaratutako testu edo lanak bialtzea.

Eskaintzen dogu

Jardunaldi erdiko lanaldia (18 ordu eta erdi astean).

Interesa daukazuenok kurrikuluma bialdu daitezue, maitzaren 15a baino lehen, helbide honetara: begitu@topagunea.com

begitu



LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



filippini Nilfisk JCB MANITOU CTX CONTAINEX TeknoDidaktika HIKOKI POWER TOOLS GENERGY MASTER INSTANT UPRIGHT



begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizitatea diseinatzeko deutsu.

Publizitate eskusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu (beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizitatea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.